# Enpresa txiki eta ertain, bakarkako enpresaburu eta profesional autonomoei finantza-laguntza emateko programa 2015erako

Eusko Jaularitza

# Xedea

Enpresa txiki eta ertainentzako, banakako enpresa buruentzako eta profesional autonomoentzako finantzaketa-lerroa eratzea.

# Eskatzaileak (erakundeak zein pertsonak)

- Euskal Autonomia Erkidegoan dauden ETEak (enpresa txiki eta ertainak).

- Euskal Autonomia Erkidegoko enpresaburu edo profesional autonomoak.

# Finantzaketa-eragiketen ezaugarriak

- Baliabidea: mailegu amortizagarria

- Gehieneko interes-tasak: Euriborra sei hilabetera, gehi gehieneko diferentziala, maileguaren epearen arabera.

# Maileguen zenbatekoa

a) 50.000 euro eta 650.000 euro artean, enpresa txiki eta ertainentzat

b) 5.000 euro eta 100.000 euro artean, banako enpresaburuentzat eta profesional autonomoentzat

# Aurkeztu beharreko dokumentuak

## ETEak:

- Eskabidea, eranskineko F1P formularioan jasotako ereduaren arabera.
- Pertsona eskatzailearen ordezkaritza-ahalordearen fotokopia.
- Eskabidean jasotzen diren alderdiak egiazkoak direla dioen zinpeko adirazpena (eranskineko F2P formularioa).
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztelako frogagiria.
- Foru Aldundiaren ziurtagiria, enpresak alta emanda duen jarduera ekonomikoen gaineko zergaren epigrafea azaltzen duena.
- Azken hiru ekitaldietako (2012-2014) urteko kontuak.
- Pasibo galdagarria finantzatzeko beharrizanen deskribapen-memoria. Enpresak egin behar du (eranskineko F3 formularioa).

# Aurkeztu beharreko dokumentuak

## Enpresaburu indibidual edo autonomoa:

- Eskabidea, eranskineko F1A formularioan jasotako ereduaren arabera.
- Eskabidean jasotzen diren alderdiak egiazkoak direla dioen zinpeko adierazpena (eranskineko F2A formularioa).
- Foru Aldundiaren ziurtagiria, profesionalak alta emanda duen jarduera ekonomikoen gaineko zergaren epigrafea azaltzen duena.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztelako frogagiria.
- Eskatzailearen ondasunen aitorpena.
- 2014ko diru-sarrera eta gastuen egikaritzea, eta urte honetarako aurreikuspena
- Pasibo galdagarria finantzatzeko beharrizanen deskribapen-memoria

# Eskabideak aurkeztea

- **Non:** Lankidetza-hitzarmenaren arabera laguntzaileak diren elkarrekiko berme baltzuen bulegoetan

- **Epea:** 2015-02-09tik 2015-12-31ra arte

# Informazio gehiago:

Interesdunek www.euskadi.eus atarian edo Zuzenean arreta-zerbitzuaren bitartez (012 telefono-zenbakia) eskuratu ahal izango dute informazio gehiago, baita eskaera-orriak ere.